

# Surik hartzen ez duen puxika


Honako hau ere “gutxiago gehiago da” moduko esperimntua da. Oso diru gutxi gastatuta (zenbat balio du, bada, puxika batek?) eta ia prestakuntzarik gabe, esperimntu bat benetan txundigarria egin dezakezu. Puxikak etengabe lehertzen dira, ezta? Beraz, zergatik ez da lehertuko honako hau, sugarraren ondoan jartzean?

## BEHARKO DUZU

- Puxika bat (urari eusteko bezain gogorra)
- Kandela bat
- Pospoloak
- Ura
- 2 litroko botila bat, urez bete (hautazkoa)

## METODOA

1. Bete puxika urez, gutxi gorabehera laranja baten tamaina izan arte. Horretarako, txorrotaren muturra puxikaren ahoan sar dezakezu. Bestela (sukaldetik urrun bazaude), gauza bera egin dezakezu botila baten ahoarekin.



2. Lotu puxika korapilo seguru batekin eta eragin, sobera dauden tantak eror daitezten.

3. Piztu kandela eta ipini leku seguru batean.
4. Eutsi puxikari, korapiloari atximurka eginez, eta eraman sugarraren ondora.
5. Eutsi puxikari sugarraren ondoan segundo batzuk, eta gero baztertu.
6. Errepikatu prozesua; badirudi puxikak ez duela surik hartzen!



## ZIENTZIA-AITZAKIA

Esperimentu honek bero-xurgapenari buruzko informazio ugari ematen digu. Puxika “normal” bati (airez betea) sugarraren ondoan eutsiz gero, berehala lehertuko litzateke. Sugarraren beroak goma ahulduko luke, harik eta goma hori barruko airearen presioari eusteko gai ez izan arte. Urak, ordea, oso ondo xurgatzen du beroa. Hau da, puxikaren barruko urak sugarraren beroa xurgatzen du, eta gomak ez du ia kalterik jasaten.



## KONTUZ!

Itzali kandela esperimentua egin ondoren.

**Kontuz pospoloekin!** Esperimentu honetan pospoloak erabili behar dira, eta heldu arduratsu baten gidaritzapean soilik egin behar litzateke.